


## EUROPAKO HAUTESKUNDEAK 2004



## Hernanin HZ-k lortu du babes haundiena, 2.390 botorekin, eta abstentzioa %60koa izan da

■ PSOEk 1.297 boto lortu ditu, Galeuscak (EAJ) 968, EdPk (EA) 576, PPK 531, EB-IUK 207 eta Aralarrek 124  
■ Urnetara deituta zeuden hernaniarren %40k eman zuen botoa atzo, 6.177 pertsonen.

ABSTENTZIOA izan zen protagonista nagusia atzo Europako hauteskundeetan. Botoa ematera deituta zeuden hernaniarretatik %60 ez zen urnetara inguratu, 15.472 pertsonatatik 9.295ek ez zuen botoa eman. 1.999an izan ziren Europako azkeneko hauteskundeak eta orduan abstentzioa % 33koa izan zen.

Botoa eman dutenetatik, berriz, Herritarren Zerrendak lortu du babes haundiena Hernanin. 2.390 pertsonen eman dute Herritarren Zerrendaren aldeko botoa, legez baliorik gabea. Mariaje Fullaondo HZ-ko zerrendaburuak Biterin

botatu zuen. Bigarren indarra, eta legez aurrenekoa, PSOE izan da Hernanin, 1.297 botorekin. Borrelen zerrendak 25 Diputatu izango ditu Europako legebiltzarrean.

Galeuscak (EAJ) 968 boto lortu ditu Hernanin eta Europako 3 Diputatu izango ditu. EdPk (EA) 576 boto ateratu zituen atzo eta Diputatu bat izango du Europako. PPK 531 boto lortu ditu eta 23 Diputatu izango ditu. Ezker Batuak 207 boto jaso ditu Hernanin eta 2 Diputatu lortu ditu koalizioak. Aralarrek 124 boto jaso zituen eta ez du ordezkariarik izango Europako. □



Atzo ez zen jende asko ibili hauteskunde eskoletan.

## Eskulanen erakusketa Gure Etxolan

GURE Etxolan ikastaroak antolatzen dituzte urtero: pintura, marrazketa, joskintza, besteak beste. Erakusketa jarri dute kurtsoan zehar ikastaro hauetan egindako lanekin eta nahi duenak ikusteko aukera izango du Gure Etxolako zentroan, Atzieta kalean. Erakusketa bihar eta etzi izango da irekita, hilaren 15 eta 16. □

## Hitzaldia bihar Biterin Boliviako herri indigenei buruz

HERNANIKO Kooperazio Taldeak antolatuta hitzaldia dago bihar Biterin. Manuel Egiguren arituko da hizlari, Boliviako Beniko Gotzaiak. Boliviako herri indigenen egoera izango da hitzaldiaren gaia, beraien eskubideak bideratzen doazela azalduko du Manuel Egiguren eta lurra, kultura, ohiturak eta autogestioaz ere hitz egingo du Gotzaiak. Bihar, arratsaldeko 19:30etan. □

## Bonobusaren aldeko bilera deitu du biharko Elkartzenek

ELKARTZENEK Bonobusaren aldeko bilera deitu du gaurko. Elkartzenek salatu du autobus gorria eta urdinaren prezioa bidegabekoa dela eta kostu izugarria suposatzen duela egunero erabili eta diru sarrera haundia ez duten herritarrentzat. Bilera bihar izango da, arratsaldeko 20:00etan, Biterin. □

## Errugbi Elkartek batzar orokorra egingo du ostiralean

HERNANIKO Errugbi Elkartek batzar orokorra egingo du datorren ostiralean, hilaren 18an. Bi konbokatokia izango dira: aurrenekoa 19:30etan eta bigarrena 19:45etan. Landaren egingo da. □



**musika eskola**  
**DOINU-ZALE**

KARABEL AUZOA, 4 • behea ezkerrean  
943 33 12 33 - 20120 HERNANI

Musikaren lenguaia  
Pianoa  
Akordeoa  
Panderoa  
Bateria Modernoa



Tronpetak  
Trikritixa  
Kitarra  
Abesbatza  
Armonia

**AURREMATRIKULA ZABALIK: EKAINAREN 1etik**  
**15era. Arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara.**

HELDUENTZAKO IKASKETA BEREZIAK ~ TALDE TXIKIAK ~ MUSIKA LENGUAIA 4 URTETIK



**HATOR**  
Asesoría

**HATOR**  
Asesoría

Fiskala  
Laborala  
Kontablea  
Administratiboa

Kardaberaz 60  
Tel.: 943 55 43 12  
20120 Hernani

**Yaben English School**

Hurriaga z/g. 20120 Hernani Tel.: 943 33 17 63

- 5 eta 9 urte bitarteko haurretan espezializatuak
- Cambridge University-rako prestakuntza
- Uztaleko intentsiboak
- Azterketetako errekonferentziak

Matrikula irekia: Ekainaren 14tik 25era  
Bulego ordutegia: 10:30etatik 12:30etara  
"Local Examination Syndicate" of Cambridge University-ko kide

## Egunez nahiz gauez, giro ederra San Antoniotan

■ Gaur festa Irubidietan eta Ugaldetxon izango da.

OSTIRALETIK hasi eta igandera arte jende asko ibili da Ereñotzuko San Antoniotan. Ostiralean, aspaldiko partez, zikiro-jatea egin zuten Ereñotzun eta mahai inguruan 115 lagun bildu ziren afaltzeko. Afalostean *Mal de Ojo* taldeak dantzarako giro ederra jarri zuen eta ondorenean aritu zen *Laiotz* taldea ere jo eta fuego aritu zen goizeko ordu txikiak arte. Preso, iheslari eta deportatuak ere gogoan izan zituzten ostiral gauean egindako omenaldian.

Larunbatean kuadrila arteko *desapiyua* izan zen eguneko ekitaldi bizienetakoa. Auzoko *deportixtas* osatutako bi talde aurrez aurrez aritu ziren hainbat prueba zelebretan: karretilan norbait eraman, burua makilan jarri bueltaka eta ondoren mareatuta korrika hasi, eta abar.

### San Antonio eguna, atzo

San Antonio egunean, atzo igandea, egunez jende asko ibili zen eta giro ederrean sagardo probaketa eta hamaiketako egin zuten bertara hurbildu zirenak. Ikuskizunak ere izan ziren: TTarla Dantza Taldea, herri-kirolak, bertsolariak. Gauean Tapia eta Leturiak giro ederra jarri zuten erromerian.

### Gaur ere festa

Gaur Irubidietan eta Ugaldetxon festak jarraitzen du. Irubidietan eguerdi partean izango da festa: 11:30etatik 12:30-etara bola eta toka txapelketa izango dira; ondorenean, Jokin Sorozabal eta Unai Agirre bertsolariak kantari arituko dira eta hamaiketako ederra egiteko aukera izango da Irubidieta Jatetxean.

Ugaldetxon arratsaldeko 17:00etan hasiko da festa, San Antonio Pelota Txapelketako finalak jokatu kodira-eta. Ondoren, Jokin Sorozabal eta Unai Agirre bertsolariak arituko dira. 19:00eta toka txapelketa izango da eta 20:00-etatik aurrera, Epelde eta Larrañaga trikitilariekin erromerian dantza. □



Koadrila arteko *desapiyuan* bat korrika, besteak agindu ematen.



Bati baino gehiagori kosta egiten zitzaion basoan asmatzea.



TTarlako dantzariak emanaldi polita egin zuten.

## ■ PELOTA - HERRI ARTEKO TXAPELKETA



Kadeteetan, Paul Ojuel eta Izadi Grajal Azkoitiako bikotearen aurka.

## Hernanik 3 partiduak irabazi ditu Azkoitiaren kontra

HERNANI Herri Arteko Txapelketako finalaurrekoetan dabil. Atzo goizean jokatu zuten Azkoitiaren kontrako aurreneko partidua eta hernaniarrak, hiru kategoriatan, irabazi egin zuten. Kadeteetan, Paul Ojuel eta Izadi Grajalek 22 eta 9 irabazi zuten; jubeniletan, Beñat Aizpitarte eta Aitor Gorrotxategik 22 eta 10 irabazi zuten

eta nagusietan, Unai Albarezek eta Oier Mendizabalek 22 eta 6 irabazi zuten.

Datorren astean, larunbata gauean, Azkoitian jokatu du-te bueltako partidua. Hernaniarrek bentaja handia dute, 3 partidu irabazi eta tanto asko lortu baitituzte. Hiru partidutatik bat irabaztea nahikoa dute finalera pasatzeko. □



Hizkuntza eskubideen aldeko pankarta atera zuten partiduan.

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103
- ▶ Alkoholiko anonimo: 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
- ▶ Gauez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32 ☎ 943 361556

### IRAGARKI MERKEAK

Nissan Primera salgai. SS-AN. 1.200 euro. Interesatuek deitu: **661 86 22 19**

Langile autonomia behar dugu, janari dendan lan egiteko. Deitu: **657 79 29 48**

Bi ohe artikulatu (motorrarekin artikulatzen dira) dauzkatz salgai. 90 zmk zabalera dute eta berri berriak daude. Prezioa adosteko Deitu: **943 33 37 67 . 943 33 05 84**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

Tabernan lan egiteko pertsona bat behar da. Deitu: **615 74 87 27**

Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko: Deitu: **616 28 62 13**

## YGALDET XO Jatetxea



Bazkariak eta Afariak

Ereñotzu auzoa - Tel.: 943 55 02 40 - 20.120 Hernani

### Gaur arratsaldean, festa 17:30etatik aurrera:

- San Antonio pelota txapelketako finalak
- Bertsolariak: Unai Agirre eta Jokin Sorozabal
- Erromeria goizalderarte: Epelde eta Larrañagarekin

Zatoz zu ere festara!

## ETXE BERRI GABERNA



- eguneko menua
- asteburuko
- pinxto bero eta hotzak
- kazuelidak
- pinxto berezia: gaizba brotxeak

EtxeBerri 2 ☎ 943551267



## IRUBIDE JATETXEA

- Eguneroko menua
- Asteburuko menua
- Plater konbinatuak

Epele auzoa 7 - 2120 Hernani ☎ 943 552 480



### Gaur eguerdian, festa:

- hamaiketako
- bola eta toka txapelketak
- Bertsolariak: Jokin Sorozabal eta Unai Agirre
- Bazkari ederra egiteko aukera